

6 mantangorri



AZOKA

MAHAI JOKOA

Izenburua: ‘Donostiarrok harriz harri’. **Egileak:** Koma zerbitzu kulturalak eta Kometa. **Edukia:** Donostia hiria erreta ageri den jolas taula, lau pertsonaia eta 114 fitxa. **Argitaratzailea:** Donostiako Udala.

Miren Koro Campos

HISTORIALARIA

«Batera lan egin behar da, hiria eraikiko bada»

A buituaren 31n, berrehun urte beteko dira Donostia suntsitu zutela. Gertakari horren harira, askotariko ekintzak eta jarduerak antolatu dira aurten Gipuzkoako hiriburuan. *Donostiarrok harriz harri* mahai jokoaren bidez ere hiriburuaren historiako pasarte ilun hori gogoratu nahi da.

Duela berrehun urteko historia gogoratzan da.

Bai, 1813ko udan, porrot handia jasan zuten frantsesek Gasteizen. Gipuzkoako hiriburuak balio estrategiko handia zuenez, kosta ahala kosta, eutsi egin behar ziotela era-baki zuten. Urgull mendian zeuden babesturik. Frantsesak hiriburutik botatzeko helburuarekin, ingele-sak eta portugaldarrak iritsi ziren Donostiara. Hiriburura sartzean, hiriari su eman zioten. 1813ko abuztuaren 31 zen. Egun hartan, Donostia osoa, Trinitate kaleko –egun, Abuztuaren 31 kalea– zati bat izan ezik, erabat suntsitua geratu zen. Zortzi egun geroago, baina, biztan-leen hainbat ordezkarri Zubietan bildu ziren, eta hiria berreraikitzea erabaki zuten.

Hain zuzen, orain dela berrehun urteko histori hori kontatzen edo gogoratzan da jokoaren bidez.

Zein da jokoaren helburua?

Suntsituta geratu den hiria berre-raitzea da helburua. Hala, lanki-



detza edo talde lanaren bidez, hiria berriro eraikitzea lortu behar dute jokalariek. Orain dela berrehun urte donostiarrek erabili zuten elkar laguntzeko dinamika bera da, beraz, jolasaren oinarria.

Zenbat jokalarik parte har dezakete?

Berez, lau pertsonaia daude. Lau horietatik bi maila sozial altuko biztanleak dira, eta beste biak lan-gile xumeak. Izan ere, garai hartako Donostiaren isla izatea nahi genuen jokoak, eta, beraz, giza talde ezberdinako pertsonaiak sortzea erabaki genuen. Berez, lau pertsonaia dira, baina, jokalari askok parte hartu nahi badute, tal-deak osa daitezke.

Zer egin behar da?

Hiria berriro eraikitzea da azken helburua. Jolasteko taula Donostia hiriaren mapa edo plano bat da, eta bertan hiriburu erreta edo



suntsituta ikus daiteke. Plaza Berrian hasten da jokoa –gaur egungo, Konstituzio enparantza–, eta han kokatzen dira lau jokalariak. Jokalari guztiak batera eraiki beharko dute hiria, denen artean, beraz, elkar lagundu beharko dute. Horretarako, eraikin baten aurreko aldearen edo fatxadaren zazpi zatiak aurkitu beharko dituzte. Zati horiek hiritik barreiatuak daude.

Non jarri behar dira fitxak?

Hasteko, atzoko aldean jolasaren izena duten 19 fitxa hartu, buelta eman –eraikin eta fatxadak ahoz behera daudela–, ongi nahastu eta bidean dauden borobiltxoetan jarriko dira; borobiltxo bakoitzean bat. Gauza bera egingo da harri fitxekin eta zorigaitzokoekin. Azken

fitxa horiek hutsik dauden beste laukitxoetan zein aurrez jarrita-koen gainean jar daitezke. Beste zazpi fitxetan eraikin baten fatxadaren irudiak dira; hiria berre-raitzeko topatu beharrekoak, alegia. Azkenik, beste hamabi fitxa daude, eta fitxa horietan lau erai-kin daude: eraikin bakoitzeko hiru fitxa. Fitxa horiek taularen lau izkinetan jarriko dira.

Nola mugi daiteke alde batetik bestera?

Harrien seina fitxa ematen zaizkio jokalari bakoitzari. Bidean au-rerra egiteko, harriak erabili beharko dituzte; zenbat lauki egin nahi den aurrera, hainbat fitxa erabili beharko ditu. Jokalaria ge-ratzen den laukian topatuko duen edo dituen fitxei buelta emango die. Han topa ditzake: adreiluen fitxa gehiago, zorigaitzoko fitxak, eraiki-nen irudiak...

Lankidetza jolas bat da, ezta?

Bai, batera lan egin behar da, hiria eraikiko bada. Zorigaitzoko fitxaren bat egokituz gero, adibidez, beste

jokalariak joan behar dute hura salbatzen. Edo inor harrik gabe geratzen bada, beste jokalarien batek joan beharko du harriak ematera. Denen artean eraikin baten irudia duten hiru fitxa berdin topatu behar dituzte; lanak nondik hasi adieraziko diente fitxa horiek. Bestalde, fatxada bereko zazpi zatiak ere bildu behar dituzte. Denek batera lan egitea beharrezkoa da, beraz, kalkuluak eta es-trategia oso garrantzitsuak dira jokoan.

Noiz amaitzen da jokoa?

Behin, eraikin bateko zazpi zatiak bildu ostean, hiria berreraikitzeko lanen abiapuntuan elkartu behar dute jokalari guztiekin. Lanen abiapuntua eraikin bat izango da. Eraikitzen hasteko ezinbestekoia izango da eraikinaren zazpi zatiak edukitzea, eraikinaren hiru irudi berdin izatea eta jokalari guzti-guztiak bertan izatea. Partaideren bat falta baldin bada, ezin dira eraikitze lanak hasi.